



ARAIZKO UDALA
Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

ZERBITZU KONTRATUA: “Malloko kablearen behatokian erakusgarri izanen den edukia egitea eta edukien irisgarritasuna eta digitalizazioa”

Arribe-Atallun, 2023ko azaroaren 14an.

Araizko Udaletxean, goizeko bederatziak izanik, “Malloko kablearen behatokian eraikuntza, erakusgarri izanen den edukia egitea eta edukien irisgarritasuna eta digitalizazioa” izeneko kontratazio espedientearen aurkezturiko eskaintzak aztertzeko Kontratazio Mahaia eratu da.

Kontratazio Mahaia, honako kideek osatu dute:

Lehendakaria: Jose Manuel Zubillaga Muguerza

Bokalak:

- Igone Vazquez Angulo, Araizko Udaleko zinegotzia.
- Asier Arsuaga Ugalde, Araizko Udaleko zinegotzia.
- Joanes Aleman Olo, Araizko Udaleko idazkaria.

Alaitz Ibarguren Beloki ez da bertaratu arrazoi justifikatuengatik.

Kontratu honen xede diren lanak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari jarraiki, atalase komunitarioaren azpitik den prozedura irekiaren bidez esleituko dira.

Ondorengo eskaintzak aurkeztu dira epe eta dagokion moduan:

- Labrit Multimedia S.L.. 2023ko azaroaren 9an aurkeztua. Aurkezpen zenbakia: 113855.
- Heda Comunicación S.L. 2023ko azaroaren 13an aurkeztua. Aurkezpen zenbakia: 114241

Mahaia eraturik “Dokumentazio administratiboa” izeneko lehenengo gutunazala irekitzeko agindu du Lehendakariak eta dokumentuen irakurketari ekin zaio.

Idazkariak gutunzaletan dauden dokumentu zerrenda ziurtatu du, emaitza hau izanik:

LIZITATZAILEA	NAN	Dokumentazio administratiboa
LABRIT MULTIMEDIA	B71008940	Dokumentazio osoa



ARAIZKO UDALA
Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

HEDA COMUNICACIÓN SL	B31575590	Dokumentazio osoa
-----------------------------	------------------	--------------------------

Aurrekoan oinarriturik Kontratazio mahaiak hurrengo eskaintzaileak onartu ditu lizitazioan:

- Labrit Multimedia SL.
- Heda Comunicación SL.

Hau honela, lizitazioan onartua izan den eskaintzaileak aurkezturiko bigarren gutunazala (Formula bidez zenbagarriak ez diren irizpideei buruzko dokumentazioa) ireki da. Kontratazio mahaiak honako emaitzak hauek onartu ditu:

	Labrit Multimedia SL	Heda Comunicación SL
Proposamen teknikoa	47	46

Honela bada, goizeko hamarrak direnean lehendakariak amaitutzat eman du bilera.

Gertatua egiaztatzeko idazkaria naizen honek akta idatzi eta lehendakariak eta bokalek sinatu egin dute; fede ematen dut

Araitzen, 2023ko azaroaren 14an.

Jose Manuel Zubillaga Muguerza

Igone Vazquez Angulo

Asier Arsuaga Ugalde

Joanes Aleman Olló